

[Emakumeon Mundu Martxaren Nazioareko IV.](#) Ekintza hasi berri da. Askok dakizuenez, eta asko ezagutzera helduko zaretenez, mundu mailako ekintza hau 2000. urtean hasi zen, eta milaka emakume jarri ditu martxan, emakume guztiok libre izan arte! Europa mailan aurtengo martxa Kurdistanen hasi zen pasa den martxoaren 6an. Hilabete hauetan zehar, urriak 17ra arte, karabana feminista batek Europa zeharkatuko du; Euskal Herrira irailaren bukaeran helduko da. Zuek parte hartzea nahi dugu. Beti parte hartu izan duzuenok egotea nahi dugu, baina baita orain arte parte hartu ez duzuenok ere.

Horretarako helarazi nahi dizuegu martxa proposamen eta ekimen desberdinei irekita dagoela. Zer gustatuko litzaizueke egitea zuen herrian, auzoan, hirian karabana pasatzen denean? Hasi al zarete jada ekintza edo ihardueretan pentsatzen? Parte hartzeko interesa izango luketen emakume edo feminista talderik ezagutzen al duzue? Zein motatako ekintzak bultzatzea gustatuko litzaizueke? Ikusten duzuenez, nazioarteko ekintza antolakuntzan buru-belarri sartuta gaude Euskal Herrian, eta zuekin konpartitzea gustatuko litzaiguke.

Egun berean Hego Euskal Herriko lau hiriburuetan zunbatoi saioak egingo ditugu Bangladesheko ehun-fabrikaren tragediaren oroimen eta aldarrikapenaren alde. Anima zaitezte! Ekarri zuen proposamenak Emakumeon Mundu Martxarako! Gure herri, hiri eta bazterrak morez pintatuko ditugu! Martxan jarraituko dugu emakume guztiok aske izan arte!

Euskal Herriko Emkumeen Mundu Martxa